

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2024ko abenduaren 21etik 27rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2024/12/21

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Organo-emateak.** 6/2024 Legea, abenduaren 20koa, bizirik direla ondoren transplantatzeko organoak edo ehunak ematen dituztenen babesa hobetzekoa. **26693 xedapena- 14 or.**
- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Zergak.** 7/2024 Legea, abenduaren 20koa, zeinaren bidez, beste zerga-arau batzuk aldatzeaz gain, hiru zerga ezartzen baitira: talde multinazionalentzat eta talde nazional handientzat gutxieneko zergapetze-maila globala bermatzeko zerga osagarri bat, finantza-erakunde jakin batzuen interes-marjinen eta komisioen gaineko zerga bat, eta zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin zerikusia duten beste produktu batzuen gaineko zerga bat. **26694 xedapena- 131 or.**
- **GORTE NAGUSIAK. Presako neurriak.** Diputatuen Kongresuaren 2024ko abenduaren 19ko Ebazpena, 2024ko azaroaren 8ko 8/2024 Errege Lege Dekretua baliozkotzeko Akordioa argitaratzeko agintzen duena. Errege Lege Dekretu horren bidez, premiazko neurri osagarriak hartzen dira goi-geruzetako depresio isolatuak (GOIDI) 2024ko urriaren 28a eta azaroaren 4a bitartean zenbait udalerritan eragindako kalteei berehala erantzuteko, haiek berreraikitze eta berriz indartzeko plana bultzatzeko. **26695 xedapena- 1 or.**

2024/12/24

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Presako neurriak.** 9/2024 Errege Lege Dekretua, abenduaren 23koa, zeinaren bidez presako neurriak hartzen baitira ekonomiaren, zergen, garraioaren eta Gizarte Segurantzaren arloetan, eta luzatu egiten baitira zaurgarritasun sozialeko egoerei aurre egiteko zenbait neurri. **26915 xedapena- 140 or.**
- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Presako neurriak.** 10/2024 Errege Lege Dekretua, abenduaren 23koa, 2025erako aldi baterako energia-karga bat ezartzekoa. **26916 xedapena- 9 or.**

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Presako neurriak.** 11/2024 Errege Lege Dekretua, abenduaren 23koa, erretiro-pentsioaren eta lanaren bateragarritasuna hobetzekoa. [26917 xedapena- 21 or.](#)
- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Dopina.** 1303/2024 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, zeinaren bidez aldatzen baita kiroleko dopinaren aurkako abenduaren 28ko 11/2021 Lege Organikoa garatzeko erregelamendua (urriaren 24ko 792/2023 Errege Dekretuaren bidez onetsia). [26924 xedapena- 24 or.](#)
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. Animaliak. Identifikazioa eta erregistroa.** 1307/2024 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, urriaren 17ko 787/2023 Errege Dekretua aldatzen duena. Errege Dekretu horren bidez, abeltzaintzarekin lotutako xedapen batzuk emateaz gain, xedapenak ematen dira itxian dauden lehorreko zenbait animalia-espezieren trazabilitate-, identifikazio- eta erregistro-sistema arautzeko. [26927 xedapena- 14 or.](#)
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. Mahastizaintza-ekoizpena.** 1308/2024 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, mahastizaintza-ekoizpenaren potentziala arautzen duen urriaren 29ko 1338/2018 Errege Dekretua aldatzen duena. [26928 xedapena- 29 or.](#)
- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantza.** 2024ko abenduaren 17ko Ebazpena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarena, Gizarte Segurantzaren nahitaezko diru-bilketarako zenbait unitateren lurralde-eremua aldatzen duena. [26934 xedapena- 5 or.](#)
- **TRANSFORMAZIO DIGITALERAKO ETA FUNTZIO PUBLIKORAKO MINISTERIOA Egun baliogabeak.** 2024ko abenduaren 16ko Ebazpena, Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzarena, Estatuko Administrazio Orokorraren esparruan 2025ean epeak zenbatzeko ondorioetarako baliogabe diren egunak ezartzen dituena . [26935 xedapena- 3 or.](#)

2024/12/26

- **INDUSTRIA ETA TURISMO MINISTERIOA. Lurreko garraioak.** ITU/1468/2024 Agindua, abenduaren 11koa, elikagaiak lurretik tenperatura neurtuan garraiatzeko ibilgailu bereziek bete behar dituzten espezifikazio teknikoak eta espezifikazioekiko adostasuna kontrolatzeko prozedurak ezartzen dituen otsailaren 18ko 237/2000 Errege Dekretuaren 4. eranskina aldatzen duena; eta apirilaren 14ko ICT/370/2021 Agindua, otsailaren 18ko 237/2000 Errege Dekretuaren eranskinak aldatzen dituena. [27081 xedapena- 3 or.](#)

2024/12/27

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Enplegua.** PJC/1472/2024 Agindua, abenduaren 26koa, Ministro Kontseiluaren 2024ko abenduaren 23ko Erabakia argitaratzen duena. Erabaki horren bidez deklaritzen da Enplegua Egonkortzeko eta Malgutzeko RED Mekanismoa aktibatu dela ibilgailu motordunen fabrikazioaren sektorerako, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategineko 47 bis artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia). **27144 xedapena- 6 or.**
- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantza.** PJC/1473/2024 Agindua, abenduaren 26koa, urtarrilaren 29ko PJC/51/2024 Agindua aldatzen duena; azken agindu horren bidez garatzen ziren 2024ko ekitaldirako Gizarte Segurantzaren kotizaziorako, langabeziarako, jarduera eteteagatiko babeserako, Soldadak Bermatzeko Funtserako eta lanbide-heziketarako lege-arauak. **27145 xedapena- 4 or.**
- **INDUSTRIA ETA TURISMO MINISTERIOA.** Metrologia. ITU/1475/2024 Agindua, abenduaren 17koa, zeinaren bidez aldatzen baita otsailaren 7ko ICT/155/2020 Agindua, zenbait neurketa-tresnaren egoeraren kontrol metrologikoa arautzen duena. **27147 xedapena- 109 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2024/12/27

- **BATZAR NAGUSIAK. FORU ARAUAK.** 15/2024 Foru Araua, abenduaren 12koa, Arabako Batzar Nagusien 2025. urterako aurrekontuari buruzkoa. **4038E xedapena- 4 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2024/12/23

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Ogasun eta Finantzetako foru diputatuaren 530/2024 FORU AGINDUA, abenduaren 13koa, hiriko ondasun higiezinaren merkatu-balio probablea eguneratzeko oinarri den merkatuazterketa onartzen duena. **I-1334 xedapena- 1 or.**

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 533/2024 FORU AGINDUA, 2024ko abenduaren 18koa, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren irailaren 24ko 1582/2021 Foru Agindua aldatzen duena; azken honen bidez, kontabilitateko mugimenduen kapituluaren kasuan izan ezik, sozietateen gaineko zergaren zergadunen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egiteko zehaztapen arauemaileak eta teknikoak arautzen dira. I- 1362 xedapena- 3 or.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2024/12/26

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 4/2024 Foru Araua, abenduaren 20koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2025. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen. 9500 xedapena- 46 or.

2024/12/27

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 500/2024 Foru Agindua, abenduaren 20koa, zeinaren bidez aldatzen baita 586/2023 Foru Agindua, abenduaren 27koa, «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga. Lan etekinen, jarduera ekonomikoen etekinen eta sarien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena» izeneko 190 eredua onetsi, eta hura aurkezteko moduak eta epeak ezartzen dituen. 9463 xedapena- 4 or.

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAIO, 26 - BILBAO